

# ` ` Works 2017-2018 ` `

Erlea Maneros Zabala

21.09.2018 - 08.12.2018

CarrerasMugica

Carreras Mugica galeriak atsegin handiz aurkezten du Erlea Maneros Zabalarren Works 2017-2018, artistak gure galeriara dakarren laugarren erakusketa. Erakusketa honetan, lau lan-multzo biltzen dira, gorpuzten dituen display eraikitzaile baten inguruan.

*The Voice of the Valley* (2017) bideoan, 2017ko lehenengo sei hilabeteetan Kalifornia hegoaldeko Mojave basamortuko herrixka batean zuen estudioko eguneroko bizitza jasotzen du. Laneko jardunean, haren eskuen lehen plano bat erakusten da, denbora errealean, KNews 94.3FM irrattia entzuten den bitartean. Tokiko hedabidea da irrattia bere horretan. Esparru edo hedadura fisiko jakin baten barruan bizi diren biztanleek entzuten dituzte emanaldi-saioak. Muga geografiko hori dela-eta, programazioa transmisio-eremu bakoitzeko biztanleentzat pentsatuta dago. 94.3 irrati-etxeak eduki nazionalen hautaketa bat igortzen du, eta narrazio-modu kontserbadoreak eta libertarioak islatzen dituzten beste toki-ekoizpen batzuk ere bai, gaur egungo administrazio estatubatuarra babesten duen inguruneko sentsibilitateak. Horiez gain, besteak beste, badira honelako programak ere: Objektu Hegalari Ezezagunei (UFO) eta jarduera paranormalari buruzko "Coast to Coast" gau-saioa, eta "The Jesus Christ Show", zeinetan aurkezleak Kristoren papera eginez entzuleen Bibliari buruzko galderak erantzuten dituen.

*Untitled (The Life of Forms)* (2017-2018) kautxuzko moldez osatuta dago; hormatik bigun zintzilikatutako hainbat neurritako markoetatik sortuak izanik, markoaren muga fisikoak hartzen duen espazioaren dokumentu materialak dira.


*Temporal Arrangements. Series I* (2018) 2018an mendebaldeko prentsako hainbat hedabidetan jasotako 50 irudiko talde batean oinarritutako marrazkiak dira, guztiak ere artistaren artxibokoak. Marrazki bakoitza horietako irudi batzuk edo guztiak proiektatuz osatzen da, denbora-tarte mugatuetan egindako argazki-inprimatzeen gainean. Horrela lortzen den konposizioan, irudi bakoitza proiektatuz egindako loturarik gabeko marrazki-zatiak biltzen dira.

*Exercises on Abstraction Series VI* (2018) artista 2007az geroztik garatzen ari den lan-sorta baten atala da. Obra berri hori offset egunkari-orria bi astez basamortuko eguzki-argi indartsupean utzita lortu zuen. Eguzki-argiaren izpi ultramoreek paper tolestuaren azidoei eragindako erreakzio kimikoak ilundu egin zituen argipean egondako atalak.

Erlea Maneros Zabala (Bilbo, 1977) Los Angelesen bizi da, eta hiri horretan lan egiten du. Glasgow School of Art-en BFA eskuratu zuen 2002an, eta California Institute for the Arts-en MFA lortu zuen 2003an. Banakako erakusketak egin ditu hainbat tokitan, besteak beste, hauek: Museo Reina Sofía (Madril), Guggenheim Bilbao Museoa (Bilbo), El Eco (Mexiko Hiria), Stiftelsen 3,14 (Bergen), Seamen's Art Club (Hamburg) eta Rekalde Aretoa (Bilbo). Bestalde, leku hauetan erakutsi du bere obra: Ballroom Marfa (Marfa, Texas), CA2M Centro de Arte Dos de Mayo (Madril), Castillo/Corrales (Paris), Montehermoso Kulturunea (Vitoria-Gasteiz), Chicagoko Unibertsitatea (Chicago, Illinois) eta Kadist Art Foundation (Paris).








*Temporal Arrangements. Series I, 2018. (40 irudi 300 segundo denbora tartean). Gouache argazki inprimaketa gainean. 92x122cm.*










*Temporal Arrangements. Series I, 2018. (50 irudi 100 segundo denbora tartean). Gouache argazki inprimaketa gainean. 92x122cm.*





*Temporal Arrangements. Series I, 2018. (5 irudi 700 segundo denbora tartean). Gouache argazki inprimaketa gainean. 92x122cm.*





*Temporal Arrangements. Series I, 2018. (5 irudi 800 segundo denbora tartean). Gouache argazki inprimaketa gainean. 92x122cm.*









Ikuspegi orokorra



*Exercises on Abstraction. Series VI, 2018. Offset papera. 90x60cm.*






*Exercises on Abstraction. Series VI, 2018. Offset papera. 90x60cm.*







Untitled (The life of Forms) II. Kautxu eta pintura akriliko. 310x40x23cm.



Ikuspegi orokorra





*Temporal Arrangements. Series I, 2018. (6 irudi 1000 segundo denbora tartean). Gouache argazki inprimaketa gainean. 92x122cm.*





*Temporal Arrangements. Series I, 2018.* (5 irudi 900 segundo denbora tartean). Gouache argazki inprimaketa gainean. 92x122cm.





Ikuspegi orokorra



Ikuspegi orokorra





*The voice of the Valley*, 2017. Videoa. 4h14m



Untitled (The life of Forms) III. Kautxu eta pintura akriliko. 310x40x23cm.







Untitled (The life of Forms) II. Kautxu eta pintura akriliko. Neurri aldakorrak.



Ikuspegi orokorra



# CarrerasMugica

[www.carrerasmugica.com](http://www.carrerasmugica.com)

[info@carrerasmugica.com](mailto:info@carrerasmugica.com)

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO  
T. +34 944234725